

# HIRI HEZITZAILEEN GUTUNA



**Hiri  
Hezitzaileen**  
NAZIOARTEKO  
ERAKUNDEA

# HIRI HEZITZAILEEN GUTUNA

HIRI HEZITZAILEEN  
NAZIOARTEKO ERAKUNDEA (HHNE)  
[www.edcities.org](http://www.edcities.org)

© EDIZIOA: HHNE

DISEINUA & MAKETAZIOA  
[www.wayava.net](http://www.wayava.net)



Aitortu - EzKomertziala - LanEratorririkGabe



**Hiri  
Hezitzaileen**  
NAZIOARTEKO  
ERAKUNDEA



**Ajuntament  
de Barcelona**

Bartzelonan 1990ean egindako Hiri Hezitzaileen Nazioarteko I. Biltzarrean ordezkari zuten udalerriek hiriaren hezkuntza-sustapenerako oinarriko printzipioak jaso zituzten hasierako Gutunean. Bertako biztanleen garapena ezin dela ausazkoa izan sinetsita zeuden. Gutuna Nazioarteko III. Kongresuan (Bologna, 1994), VIII. Kongresuan (Genova, 2004) eta 2020an berrikusi zen, planteamenduak erronka eta behar sozial berrietara egokitzeko.

Gutun horren oinarriak honako hauek dira: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948); Arraza-bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa (1965); Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966); Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (1989); Guztientzako Hezkuntzari buruzko Mundu Adierazpena (1990); Beijingen antolatutako Emakumeari buruzko 4. Mundu Konferentzia (1995); Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsala (2001); Hirirako Eskubidearen Aldeko Mundu Gutuna (2005); Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa (2006); Klimari buruzko Parisko Akordioa (2015) eta Garapen Iraunkorrari buruzko 2030 Agenda (2015).

# HITZAURREA

**Gaur egun, inoiz baino gehiago, hiriek edo herriek, handia zein txikia izan, hainbat aukera hezitzaile dituzte, baina udalerrian bertan ere hezitzaileak ez diren indarrek eta inertziek eragin dezakete. Era batera edo bestera, hiriak heziketa integralerako elementu garrantzitsuak ditu: sistema konplexua da, eta,aldi berean, hezkuntza-eragile iraunkor, plural eta poliedrikoa, hezkuntza-faktoreak eta gizarte-eraldaketarako faktoreak sustatzeko gai dena.**

Hiri hezitzailean, hezkuntza eskolako harresietatik haratago doa, hiri osoan hedatzeko. Herritarren hezkuntza da, eta administrazio guztiek hartzen dute beren gain hiria hezteko eta eraldatzeko ardura, bititza eta aniztasuna errespetatzeko gune izan dadin.

**“ Hezkuntza eskolako harresietatik haratago doa, hiri osoan hedatzeko. ”**

Hiri hezitzailea prozesu iraunkor batean bizi da, eta prozesu horren helburua komunitate eta herri aske, arduratsu eta solidarioa eraikitzea da, desberdintasunean elkarrekin bizitzeko, gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta “guztionean onerako” lan egiteko gai izango dena. Hiritar horiek gaur egun gizadiak dituen errokez jabetzen dira, eta ezagutzak eta trebetasunak dituzte bizi dugun une historikoak eskatzen dituen irtenbideak bilatzeko erantzunkide izatea ahalbidetzen dietena.

Hiri hezitzaileak nortasun propioa du, kokatuta dagoen herrialdean integratua. Bere nortasuna, beraz, parte den lurraldearekiko interdependentea da. Halaber, bere ingurunearekin, bere lurraldeko beste hiriguneekin, gertuko landa-inguruneekin eta beste herrialde batzuetako hiriekin erlazionatzen den hiria da. Bere etengabeko helburua honako hau da: biztanleen bititza ikastea, berritzea, partekatzea eta, beraz, aberastea, eta, aldi berean, seguruago eta duinago bihurtzea.

Hiri hezitzaileak gauzatu eta garatu egin behar du bere funtzio hezitzailea funtzio tradizionalekin batera (ekonomikoa, soziala, politikoa eta zerbitzuak

ematekoa). Edozein adinetako pertsona guztien prestakuntzan, sustapenean eta garapenean oinarrituta egon behar du, haien prestakuntza-premiei une oro eta bizitzako alderdi guztietan erantzuteko.

Hezkuntza haurtzaroan hasten da, baina ez da inoiz amaitzen eta ez da mugatzen lan- edo lanbide-gaitasunera bakarrik. Bizitza osoan zeharreko hezkuntza da, kontzientzia mugiarazi nahi duena, askatasuna eta erantzukizuna uztartzeko, pertsonen arteko eta naturarekiko interdependentziaren zentzua piztuz, hirian eta planetan bizitzeko modu gisa. Gogoeta eta pentsamendu kritikoa sustatu nahi da, arazo konplexuak ulertzeko gaitasuna sustatu; politiken diseinuan eta garapenean parte-hartze erantzunkidea bultzatu, eta lurraldea suntsitzea eta pertsonen arteko desberdintasunak ez dakartzaten bizitzeko moduak irudikatu eta bultzatu.

Funtzio hezitzaile hori justifikatzen duten arrazoiak gizarte-, ekonomia- eta politika-alorrekoak dira; batez ere, kultura- eta hezkuntza-proiektu eraginkor eta bizikidetzako batera bideratuta daude. Honako hauek dira XXI. mendeko erronka nagusiak: lehenik eta behin, hezkuntzan “inbertitzea”, pertsona bakoitzarengan, pertsona horrek gero eta gaitasun handiagoa izateko bere giza potentziala hausnartzeko, adierazteko, baieztatze eta garatzeko, bere berezitasunarekin, sormenarekin eta erantzukizunarekin. Bigarrenik, berdintasun osoko baldintzak sustatzea, pertsona guztiak errespetatuta senti daitezen eta errespetuz joka dezaten, elkarrizketarako eta entzute aktiborako gai izan daitezen. Hirugarrenik, faktore posible guztiak bateratzea, hiriz hiri, herriz herri, bazterketarik gabeko ezagutzaren benetako gizartea eraiki ahal izateko. Eta laugarrenik, komunitate-kontzientzia eta bizitza berdintasun- eta justizia-baldintzetan antolatze trebetasunak ikastea eta garatzea.

**“ Komunitate-kontzientzia eta bizitza berdintasun- eta justizia-baldintzetan antolatze trebetasunak ikastea eta garatzea. ”**

Hiri hezitzaileek, beren hezkuntza-erakunde formalekin eta beren esku-hartze ez-formalekin (hezkuntza araututik kanpoko asmo hezitzailearekin) eta informalekin (ez dira ez intentzionalak ez planifikatuak) elkarlanean jardungo dute, alde bikoa edo alde anitzekoa, esperientzien trukea gauzatzeko. Lankidetzarako espirituarekin, azterketa- eta inbertsio-proiektuek elkarri lagunduko diote, bai zuzeneko lankidetzaren bidez, bai nazioarteko erakundeekin lankidetzan.

Hiriko haurren, nerabeen eta gazteen eskubideak bermatzea, lehenik eta behin, beren bizitzako eta eskubide zibil eta politikoen garapeneko protagonistak direla erabat bermatzea da. Halaber, komunitatearen bizitzan konpromisoa hartzeko aukera izan behar dute, kalitatezko ordezkaritza-mekanismoen eta partaidetza-mekanismoen bidez, helduekin eta adinekoekin batera, belaunaldien arteko bizikidetzat sustatuz.

Gizadia ez da soilik aldaketa-etapa bat bizitzen ari, baizik eta benetako aldaketa-aro bat, baita paradigma-aldaketa bat ere. Pertsonak beren burua prestatu behar dute une politiko, sozial, ekonomiko eta ekologikoa ulertzeko eta nola bizi nahi duten askatasunez aukeratu ahal izateko. Momentuko kulturari aurre egiteko trebetasunak garatu behar dituzte; tokiko mundutik munduaren konplexutasunean esku hartzeko, eta beren autonomiari eta espiritu kritikari eusteko, gainez egiten duen eta botere ekonomiko eta politikoko zentroetatik kontrolatzen den informazioaren aurrean.

Herritartasun globala eratzen ari da oraindik esparru global demokratikorik egon gabe, herrialde askok beren eredu sozial eta kulturalak errespetatzen dituen demokrazia eraginkorrik lortu gabe eta tradizio handiagoa duten demokraziak beren sistemen kalitatearekin pozik sentitu gabe. Bestalde, XX. mendetik XXI. mendera bitarteko trantsizioan superpotentzien arteko oreka erlatiboak nazioarteko tentsio berriei bide eman die. Hori guztia krisi ekosozial sakon batean gertatzen da. Krisi horrek arriskuan jartzen du gizadi zati handi baten bizitza, eta honako hauek markatzen dute: ekonomiari eusteko oinarritzko baliabide mineralen beherakadak, klima-aldaketak, mehatxu pandemikoek eta biodibertsitatearen galerak, komunitate zientifikoak adierazi bezala, antolaketa sozial eta ekonomikoaren eraldaketa sakon bati eragiten diotenak.

Hiri-metabolismoak klima-aldaketa globalari gehien eragiten dioten faktoreetako bat dira, kontuan hartuta munduko biztanleriaren erdia baino gehiago hiri-inguruneetan bizi dela. Aldi berean, hiriak, bertako lurraldeak eta populazioa, zaurgarriak dira hainbat dimentsiotan. Eraldaketa handiak eskatzen dituzten leku bihurtzen dituzte klima-aldaketaren, elikadura- edo energia-mendekotasunaren, kontsumismo neurrigabearen eta kutsaduraren ondorioek, bertan bizi diren pertsonentzat eta beste izaki bizidun batzuentzat bizi-baldintza duin eta osasungarriak bermatzeko. Era guztietako desberdintasun sakonek zeharkatzen dituzten agertokiak ere badira.

**“ (...) herrialde guztietako udallerriek, beren tokiko dimentsiotik, erabateko herritartasun demokratikoa esperimentatu eta sendotzeko plataforma gisa jardun behar dute. ”**

Gaur egun, herrialde gehienetako herritarren segurtasunik ezaren sentimendua areagotu da, eta ondorioz, bizitza, konfiantza demokratikoa eta munduko bakea are gehiago zailtzen dituzten deriba populisten arriskua dago. Azaleratzen diren kezka edo beldurren aurrean, eslogan sinplistik eta errudunen bilaketa irrazionalak biztanleen zati bat limur dezakete, eta, ondorioz, erradikalizatzeko eta indarkeriazko liskarrak izateko arriskua dago.

**“ Inoiz baino premiazkoagoa da balioetan eta giza eskubideetan heztea, izan ere, zentzua ematen dute, estimulua eskaintzen dute, ibilbide demokratikoa marrazten dute. ”**

Testuinguru horretan, herrialde guztietako udalerriek, beren tokiko dimentsiotik, erabateko herritartasun demokratikoa esperimentatu eta sendotzeko plataforma gisa jardun behar dute, balio etiko eta hiritarretan oinarritutako bizikidetzak baketsua sustatuz, gobernu demokratiko posibleen aniztasuna errespetatuz eta kalitatezko mekanismo ordezkatzailerak eta parte-hartzaileak sustatuz. Inoiz baino premiazkoagoa da balioetan eta giza eskubideetan heztea, izan ere, zentzua ematen dute, estimulua eskaintzen dute, ibilbide demokratikoa marrazten dute eta lasai bizitzeko aukera ematen digute.

**“ Hiri hezitzaileek inklusio-ideala dutela sentitzen dute, pertsona bakoitza den bezalakoa hartuz eta hiri-proiektu komun batean parte hartzera gonbidatuz. ”**

Aniztasuna bizitzari atxikitzen zaio, eta, jakina, egungo hiriei, eta etorkizunean are gehiago handitzea aurreikusten da. Horregatik, hiri hezitzailearen erronketako bat da identitatearen eta aniztasunaren arteko oreka eta harmonia sustatzea, hura osatzen duten komunitateen ekarpenak eta bertan bizi diren pertsona guztiak beren kultura-nortasunetik aitortuta sentitzeko duten eskubidea kontuan hartuta; horrek arrazismoari eta bazterkeria mota guztiei aurre egitea eskatzen du. Gaur egungo erronka berezitasunetarako eskubidea aitortzea da, horrekin komuna dena arriskuan jarri gabe. Hiri hezitzaileek inklusio-ideala dutela sentitzen dute, pertsona bakoitza den bezalakoa hartuz eta hiri-proiektu komun batean parte hartzera gonbidatuz.

Hiri hezitzaileak, halaber, hiri hezkidetzailleak eraikitzera zuzenduko du bere jarduna, horretarako genero-desberdintasuna sortzen duen gizarte-egitura eraldatuz, haren jatorriak aztertuz eta haren ondorioei aurre eginez, hala nola indarkeriari eta gizarte-bazterketaren feminizazioari.

Ziurgabetasunezko munduan bizi gara, segurtasuna bilatzea pribilegiatzen duena, askotan beste pertsonaren ukapen gisa eta elkarrekiko mesfidantza gisa adierazten dena. Hiri hezitzaileak, horretaz jabetuta, ez du aldebakarreko irtenbide sinplerik bilatzen; kontraesana onartzen du, eta ezagutza-, elkarrizketa- eta partaidetza-prozesuak proposatzen ditu ziurgabetasunean eta ziurgabetasunarekin batera bizitzeko bide egokitzat. Hizkuntza eta pentsamendu kritikoa lantzea, politikan, komunikabideetan eta sare sozialetan demagogia ugari dituen mundu batean, gero eta garrantzitsuagoa da, herritarrek existitzen diren hainbeste estereotipo estigmatizatzaile modu errazean ez onartzeko.

Pertsonak elkarren mendekoak gara. Zainketarik gabe ezin dugu bizirik iraun. Bizitza osoan zehar, pertsonok zaintza behar dugu, eta zaintza horien mende dago gure biziraupena eta ongizate fisiko eta psikikoa, baina, batez ere, bizizikloaren une batzuetan, hala nola lehen haurtzaroan, zahartzaro aurreratuan edo gaixotasun larrian, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen kasuan. Hiri hezitzaileak zaintza aitortu, sustatu eta bultzatu egin behar du, eta gizarte osoa egin behar du horren erantzunkide.

Adierazitako erronka eta behar guztiei erantzuteko, hiri hezitzaileerako eskubidea berretsi behar da, hezkuntzarako eskubidearen hedadura gisa. Hiri hezitzaileerako eskubideak berme garrantzitsua izan behar du pertsona guztien arteko berdintasunaren, justizia sozial eta globalaren, lurralde-orekaren eta beharrezko iraunkortasun eta erresilientziaren printzipioetan.

**“ Hiri hezitzaileerako eskubidea berretsi behar da, hezkuntzarako eskubidearen hedadura gisa. ”**

Horrek tokiko gobernuen erantzukizuna areagotzen du, hiriak dituen ahalmen hezitzaile guztiak garatzeari dagokionez, eta bere proiektu politikoan hiri hezitzailearen printzipioak txertatuta.



# PRINTZPIOAK

---

## HIRI HEZITZAILERAKO ESKUBIDEA

- 1 Hezkuntza inklusiboa bizitzan zehar
- 2 Hezkuntza-politika zabala
- 3 Aniztasuna eta diskriminaziorik eza
- 4 Kulturarako sarbidea
- 5 Belaunaldien arteko elkarrizketa

## HIRIAREN KONPROMISOA

- 6 Lurraldearen ezagutza
- 7 Informazioa eskuratzea
- 8 Gobernantza eta herritarren parte-hartzea
- 9 Jarraipena eta etengabeko hobekuntza
- 10 Hiriaren nortasuna
- 11 Bizitzeko moduko gune publikoa
- 12 Udal ekipamenduak eta zerbitzuak egokitzea
- 13 Jasangarritasuna

## PERTSONEN ZERBITZU INTEGRALA

- 14 Osasuna sustatzea
- 15 Hezkuntza-eragileen prestakuntza
- 16 Orientazioa eta laneratze inklusiboa
- 17 Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa
- 18 Baterako erantzukizuna desberdintasunen aurka
- 19 Asoziazionismoa eta boluntarioria sustatzea
- 20 Hiritartasun demokratiko eta globalerako hezkuntza

## HIRI HEZITZAILERAKO ESKUBIDEA

1

### Hezkuntza inklusiboa bizitzan zehar

Hiri hezitzaileako eskubidea pertsona guztiek hezkuntzarako duten oinarrizko eskubidearen hedatze gisa proposatzen da. Hirian bizi diren pertsona guztiek eskubidea izango dute, askatasun-eta berdintasun-baldintzetan, hirian eskaintzen diren prestakuntza, entretenimendu eta garapen pertsonalerako bitarteko eta aukerez gozatzeko. Hiri hezitzaileak etengabe berritzen du bere konpromisoa bertako biztanleak bizitzan zehar alderdi guztietan hezteko. Eta hori posible izan dadin, talde guztiak hartu beharko ditu kontuan, baita beren beharrian partikularrak ere.



Hiriko gobernuak eta administrazioak berdintasun-eskubidea eta diskriminaziorik eza kaltetzen duten edozein motatako oztupoak ezabatzeko politikak ezarriko dituzte. Horren erantzule izango dira, bai udal-administrazioa, bai hirian eragina duten beste administrazio batzuk; eta enpresa horretan herritarrak ere konprometituta egongo dira, bai maila pertsonalean, bai antolatzen den elkartzeko moduen bidez.

2

### Hezkuntza-politika zabala

Udalek eraginkortasunez baliatuko dituzte hezkuntzaren arloan dagozkien eskumenak. Eskumen horien irismena edozein dela ere, hezkuntza-politika zabala, zeharkakoa eta berritzailea planteatu beharko dute, eta bertan sartuko dituzte hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren modalitate guztiak, bai eta hirian eta auzo bakoitzean gertatzen diren kultura-adierazpenekin, informazio-iturriekin eta errealitatea ezagutzeko bideekin duten etengabeko elkarreragina ere.



Hezkuntzaren arloko udal-politikak justizia sozialaren, berdintasunaren, gizabide demokratikoaren, iraunkortasunaren, bizi-kalitatearen eta biztanleen sustapenaren printzipioetan oinarritutako testuinguru zabalago bati buruzkoak izango dira beti.

3

### Aniztasuna eta diskriminaziorik eza



Hiriak aniztasunean oinarritutako hezkuntza sustatuko du, ulermenerako, nazioarteko

lankidetzaren solidariarako, herri indigenak eta diskriminazioaren xede diren beste etnia batzuk aitortu eta errespetatzeko, eta munduan bakea lortzeko. Edozein diskriminazio motaren aurka egiten duen hezkuntza. Adierazpen- eta kultu-askatasuna, kultura-aniztasuna, elkarrizketa eta entzute aktiboa bultzatuko ditu, berdintasun-baldintzetan. Helburu horiekin bat datozen ekimen guztiak hartuko ditu, jatorria edozein dela ere. Klase sozialak, jatorriak, etniak, generoak, adinak, sexu-orientazioak, dibertsitate funtzionalak edo beste edozeinek eragindako desberdintasunak zuzentzen lagunduko du. Era berean, hirian dauden hizkuntzen balorazioa, ezagutza, ikaskuntza eta erabilera sustatuko ditu, pertsonen arteko kohesio-faktore eta elementu integratzaile gisa.

4

### Kulturarako sarbidea



Hiri hezitzaileak kulturarako eskubidea eta pertsona guztien eta, bereziki, egoera ahulenean dauden

kolektiboaren parte-hartzea sustatuko du hiriko bizitza kulturalean, inklusiorako, kide izatearen sentimendua eta bizikidetzaren onak sustatzeko bide gisa. Kultura-ondasunez gozatzeko gain, parte-hartze kultural horrek barne hartuko ditu herritar guztiak kultura bizi eta aldakor bati egin diezaioketen ekarpena eta herritarrek kultura-ekipamenduen eta kultura-ekimenen kudeaketan duten inplikazioa.

Era berean, hiri hezitzaileak arte-hezkuntza, sormena eta berrikuntza sustatuko ditu, abangoardiako nahiz herri-kulturako kultura-ekimenak sustatuz eta babestuz, garapen pertsonal, sozial, kultural eta ekonomikorako bitarteko gisa.

5

### Belaunaldien arteko elkarrizketa



Hiri hezitzaileak belaunaldien arteko hurbiltasuna eta lankidetzaren sustatuko ditu, eta

adinerari aurre egingo dio, ez bakarrik bizikidetzaren baketsurako formula gisa, baita adin desberdinetako pertsona-taldeen artean proiektu komunak eta partekatutako bilatzeko ere. Proiektu horiek ekimen eta ekintza zibikoak egitera bideratu beharko lirake. Ekimen eta ekintza horien balioa, hain zuzen ere, belaunaldien arteko izaeran eta adin bakoitzari dagozkion gaitasun, bizipen eta balioen aprobeitamenaren datza.

## HIRIAREN KONPROMISOA

### 6

#### Lurraldearen ezagutza

Hiri hezitzaileak aitortzen du errealitatearen ezagutzan oinarritutako erabaki politikoek erantzun egokiagoak ahalbidetzen dituztela; beraz, tokiko gobernuek informazio zehatza izan beharko dute lurraldeko eta bertako biztanleen egoerari eta bizi-baldintzei buruz, eta azterlanak egin edo babestu beharko dituzte, herritarrentzat eguneratuta eta eskuragarri egongo direnak. Proiektuak eta politikak formulatzean, modu formalean eta esplizituan hartu behar da kontuan haien eragin hezitzailea, eta pertsonetikiko eta taldeekiko komunikazio-bide ireki eta iraunkorrak ziurtatu behar dira.



### 7

#### Informazioa eskuratzea

Udalerriak informazio nahikoa eta ulergarria bermatu beharko du, eta bertako biztanleak informatzera bultzatu beharko ditu. Hiri hezitzaileak, gaur egun eskuragarri dagoen informazio-emari handia hautatu, ulertu eta tratatzeak dakarren balioa kontuan hartuta, pertsona guztien eskura dauden baliabideak jarriko ditu, eta hiriko gune eta esparru guztietan konektatzeko aukera bermatuko du.



Hiri hezitzaileak informazioaren eta komunikazioaren teknologiei buruzko prestakuntza-programak ezarriko ditu adin eta gizarte-talde guztientzat, eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko, inor atzean ez uzteko eta eten digitala deiturikoari aurre egiteko. Era berean, pertsona guztien zientzia- eta ikerketa-gaitasunak eta trebetasunak sustatuko ditu, batez ere haur eta gazte garaian, errealitatearen begirada kritikoa eta objektiboa indartzeko.

Udalerriak laguntza berezia behar duten kolektiboek arreta emango die, eta informazio-, orientazio- eta laguntza-gune espezializatuak jarriko ditu haien eskura. Adimen artifiziala eta Big Data bezalako balizko kontrolerako tresnek aurrera egiten badute, pribatutasunarekiko, intimitatearekiko eta autonomiarekiko errespetua bermatzeaz arduratuko da.

8

## Gobernantza eta herritarren parte-hartzea

Hiri hezitzailea gobernantza-paradigma batetik eraikiko da, non administrazio publikoak eta herritarrak lankidetzan arituko diren haren diseinuan eta aurrerapenean, eta lankidetzaz hori hiri hezitzailearen berezko zigilua izango da.

Herritarren parte-hartzea sustatuko du, ikuspegi kritiko, eraikitzaile eta erantzunkide batetik, udal-kudeaketan eta bizitza komunitarioan, erabakiak hartzeko prozesuak herritarrei irekiz. Instituzio eta erakunde zibil eta sozialak izan beharko ditu, ekimen pribatuak eta parte hartzeko beste modu natural batzuk kontuan hartuta. Horretarako, tokiko gobernuak beharrezko informazioa emango du aldeaz aurretik, eta, zeharkakotasunetik abiatuta, haurtzarotik partaidetzako prestakuntza-orientabideak eta -jarduerak sustatuko ditu. Parte-hartze prozesu bat amaitzean, emaitzen berri emango da jendaurrean, eta jarraitutako prozeduraren eraginkortasuna eta mugak aztertuko dira.



Haurrei, nerabeei eta gazteei gaur egungo herritarren titulartasuna aitortuko zaie, eta eskubidea izango dute bizitza komunitarioaren kudeaketan eta hobekuntzan pertsona helduen baldintza berberetan parte hartzeko, horretarako bide eta tresna egokiak erraztuz.

9

## Jarraipena eta etengabeko hobekuntza

Udalak udal-politikek hezkuntzan, gizartean eta ekologian duten eragina ebaluatuko du, etengabeko hobekuntzarako.

Hiriko hezkuntza-proiektua, horrek sustatzen dituen balioak, eskaintzen duen bizi-kalitatea, antolatzen dituen ospakizunak, prestatzen dituen edozein motatako kanpainak edo proiektuak hausnartu eta ebaluatu egingo dira, garapen pertsonala eta kolektiboa sustatzen lagunduko duten politiken koherentzia bermatzeko behar diren tresnekin.



10

## Hiriaren nortasuna

Hiriak bere nortasun propioa, konplexua eta aldakorra aurkitzen, zaintzen eta aurkezten jakin behar du, eta ondare ukigarri eta ukiezinari eta berezitasuna ematen dion memoria historikoari balioa ematen. Hori da inguruarekin eta



munduarekin elkarriketa emankorra izateko oinarria. Haien ohituren eta jatorriaren balorazioak bateragarria izan behar du giza eskubideekin. Era berean, irudi erakargarria eskainiko du, ingurune naturala eta soziala desitxuratu gabe, bertako biztanleen artean partaide izatearen eta erantzukizun partekatua sentimendua sustatuz.

11

## Bizitzeko moduko gune publikoa

Leku publikoaren antolamenduak irisgarritasuna, zaintza, osasuna, topaketa, segurtasuna, jolasa, aisialdia eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko premiei erantzungo die. Hiri hezitzaileak arreta berezia eskainiko die haurren, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta adinekoen beharrei hirigintzaren, ekipamenduen eta zerbitzuen plangintzan, ingurune adeitsua eta errespetuzkoa bermatzeko, ingurune horretan ahalik eta autonomia handienarekin moldatzeko. Era berean, genero-ikuspegia duen hirigintza zainduko du. Aipatutako horiek guztiek herritar guztien zerbitzura egongo den hirigunea bermatuko dute.



Hiri hezitzaileek jolas- eta kirol-eremuak aire zabalean jartzea sustatuko dute, naturarekin kontaktua izateko eta gizarte-harremanak sustatzeko.

Hiri baten eraldaketan, premia berrien arteko harmonia izan beharko da nagusi, bai eta iraganaren eta existentziaren erreferente argi izango diren eraikuntzen eta sinboloen iraunkortasuna eta betiketzea ere. Hiriak komunitatearen bizikidetzeta eta integrazioa sustatuko du gune publikoan, eraikitakoan eta naturalean, betiere ghettoak sortzea saihestuz.

Gainera, hiriak zainduko du bertako biztanleak edertasuna deskubritu dezaketen inguruneetan bizi daitezen. Horretarako, estetika- eta ingurumen-irizpideak sartuko ditu proiektu guztietan, eta artistak inplikatuko ditu gune publikoaren antolamenduan eta diseinuan.

12

## Udal ekipamenduak eta zerbitzuak egokitzea

Udal-gobernuak bertako biztanle guztien garapen eta ongizate pertsonal, sozial, moral eta kulturalera egokitutako gune, ekipamendu eta zerbitzu



publikoak sortu eta mantenduko dituela ziurtatu beharko du. Hurrei, nerabeei eta gazteei arreta emateko prestakuntza espezifikoa duten profesionalak ezarriko ditu, bai eta adinekoentzat eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat ere.

13

## Jasangarritasuna

Hiri hezitzaileak konpromisoa hartuko du bizimodu duina izatea ahalbidetzen duten eskubide eta behar materialak asetzeko -elikadura, ura, etxebizitza, saneamendua, energia, mugikortasuna, ingurune seguru eta osasungarria-. Hiria giza bizitzaren ekodependentzia eta planetaren muga fisikoak kontuan hartuta antolatuko da. Modu aktiboan sustatuko da biztanle guztien parte-hartzea eta erantzunkidetasuna honako hauekin: bidezko bizimoduan eta kontsumoan, erresiliente eta jasangarrietan, nahikotasun-, banaketa- eta justizia-printzipioen arabera. Egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat biziraupen duina bermatzea ahalbidetzen duten ondasun komunak babesteko neurriak hartuko dira.



## PERTSONEN ZERBITZU INTEGRALA

### 14

#### Osasuna sustatzea

Hiri hezitzaileak pertsona guztien hazkunde integral eta osasungarria zainduko du, haien ongizate fisiko, emozional eta psikikoa sustatuz. Horretarako, osasun-arretarako sarbide unibertsala sustatuko du, eta ingurune eta bizimodu osasungarriak bultzatuko ditu.



Osasuna sustatzeak barne hartuko ditu jarduera fisikoa eta hezkuntza emozionala, afektibo-sexuala, elikadurakoa eta adikzioak prebenitzekoak. Era berean, hiria pertsona guztientzako zaintza-gune gisa eraikitzea sustatuko du, eta zahartze aktiboa eta bakardadeari eta isolamenduari aurre egitea ahalbidetuko duten gizarte-harremanak bultzatuko ditu.

### 15

#### Hezkuntza-eragileen prestakuntza

Hiria ahaleginduko da familiek seme-alaben hazkundearekin batera doan prestakuntza jaso dezaten, hiria ezagutzeko babes-beharraren eta autonomiaren arteko oreka zainduz, errespetuzko eta konfiantzazko espiritu baten barruan.



Ildo beretik, profesionalentzako eta hirian hezkuntza-funtzioak betetzen dituzten pertsonentzako prestakuntza-proposamenak garatuko ditu, askotan horretaz jabetu gabe. Era berean, zuzenean udalerrriaren mende dauden segurtasuneko eta babes zibileko kidegoek proposamen horien arabera jarduteaz arduratuko da.

### 16

#### Orientazioa eta laneratze inklusiboa

Hiriak bertako biztanleei gizartean postu bat betetzeko aukera eskaini beharko die; beren orientazio pertsonalerako eta bokaziozkorako behar duten aholkularitza emango die, eta ekintzailtza sustatuko du. Hiriek genero-estereotiporik gabeko ikasketa-, lanbide- eta ofizio-eskaintza baten alde lan egingo dute.





Hezkuntza-lana harremanaren esparru espezifikoan, hezkuntza-plangintzaren eta lan-merkatuaren eta komunitatearen beharren arteko harreman estua lortu beharko da.

Ildo horretan, hiriek bitzitza osoan zehar prestakuntza formala eta ez-formala emateko estrategiak zehaztuko dituzte, bai eta laguntza emateko estrategiak ere desberdintasun- edo bazterketa-egoeran dauden edo ekonomia ez-formalera bideratuta dauden kolektiboentzat, haien bizi-kalitatea hobetu ahal izateko. Horrela, sindikatu- eta enpresa-elkarteekin lankidetzan arituko dira, gizarteratzeko eta laneratzeko aukera emango dieten lanpostuak sortzen.

17

## Gizarteratzea eta gizarte-kohesioa

Hiriek eskubideak urratzeko, kanporatzeko eta baztertzeko mekanismo desberdinen aurkako politikak garatu beharko dituzte.



Bereziki, heldu berriak, migratzaileak edo errefuxiatuak artatuko dituzte. Izan ere, pertsona horiek eskubidea dute, herrialdeen arteko mugikortasunaz gain, hiri berria beren hiria bezala askatasunez sentitzeko, eta beren interesak, beharrian espezifikoak, ezagutzak eta gaitasunak balioesteko, gizarteak balioesten duen papera garatzeko. Ahaleginak egingo dituzte auzoen eta baldintza guztietako biztanleen arteko kohesio soziala sustatzeko.

Era berean, eta helburu berarekin, estigma eta bazterketa pairatzen duten bertako kolektiboekin lan egingo da.

Hiri hezitzaileak konpromisoa hartuko du indarkeria eta jazarpen mota guztiak desagerrarazteko, arreta berezia jarriz genero-indarkeriaren jatorria hauek direnean: identitate eta orientazio sexuala, jatorria eta etnia, adina, itxura fisikoa eta abar.

18

## Baterako erantzukizuna desberdintasunen aurka

Desberdintasunen aurka borrokatzeko esku-hartzeak askotarikoak izan daitezke, baina pertsonaren eskubideen eta interesen ikuspuntu globaletik abiatu beharko dira. Esparru horretan egiten den esku-hartze esanguratsu orok zerikusia duten administrazioen eta haien zerbitzuen arteko baterako erantzukizuna eta koordinazioa



bermatu behar du, toki-administrazioak premiei eta lurraldeari buruz duen ezagutza hoberenetik abiatuta.

Desberdintasunen aurkako borrokan, administrazioen eta gizarte zibil antolatua, GKEen, irabazi-asmorik gabeko erakundeen, enpresa-sarearen eta beste ekimen pribatu batzuen arteko lankidetzak ere sustatuko da.

19

## Asoziazionismoa eta boluntarioritza sustatzea

Hiriak elkarlaneko asoziazionismoa eta boluntarioritza sustatuko ditu, parte-hartze eta erantzunkidetasun zibiko modu gisa, komunitatearen zerbitzura dauden jarduerak bideratzeko eta pertsonen garapen integralerako informazioa, materialak eta ideiak lortzeko eta zabaltzeko. Helburu horrekin, hiri hezitzaileek elkarte-ekimenei laguntza emango diete hainbat arlotan, hala nola kulturean, kirolean, elkartasunean, ezagutza-trukaketan eta abarretan, betiere giza eskubideak eta balio demokratikoak errespetatuz.



Era berean, elkarte-bizitzak dakartzan erabakiak kolektiboki hartzeko, planifikatzeko eta kudeatzeko prozesuak eraginkorragoak izateko prestakuntza eskainiko du.

20

## Hiritartasun demokratiko eta globalerako hezkuntza

Hiri hezitzaileak herritar guztiei eskaini beharko die hiritartasun demokratikoaren balioei eta praktikei buruzko prestakuntza, errespetua, tolerantzia, parte-hartzea, erantzukizuna, publikoarekiko interesa eta guztion onarekiko konpromisoa sustatzeko.



Gainera, hiri hezitzaileak mundu-mailako erronkek planteatzen duten tokiko dimentsioaren eta dimentsio globalaren interdependentziari buruz kontzientziatuko du, eta prestakuntza emango die herritar globalei, toki- eta nazioarte-mailan parte hartzeko, konprometitzeko eta laguntzeko gai direnei.

Horrek guztiak, gainerako printzipioekin batera, pertsona bakoitzak hiria, ingurunea eta planeta berarekin balira bezala hartzea ahalbidetu behar du.



[www.edcities.org](http://www.edcities.org)

